



AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/8	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi mota	Arrunta
Data	2024ko ekainaren 28a
Iraupena	10:00etatik 11:00etara
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkuran izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
16287057K	EDUARDO LORZA GARCÍA	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
72841412K	MAITE CORBO BARCALA	BAI
71831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

A) EBAZPEN-ZATIA





Onestea aurreko bilkurako akta, 2024ko maiatzaren 20koa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzaren kide batek oharrik egin nahi dion 2024ko maiatzaren 20ko aurreko bilkurako aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Ez da oharrik egin eta akta onetsi da Toki Erakundearen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

332/2024 espedientea. Etxabarri Ibiñako SAUI-3ren kale-nomenklatura hasieran onesteko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

2023ko irailaren 26an, 417 zenbakidun alkatetzaren ebazpenaren bidez, Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizagarri industrialeko SAUI-3 sektorearen urbanizazio-proiektua behin betiko onetsi zen. Proiektua ZIGOITIA LOGISTICS SL enpresak sustatu zuen eta Javier González Ágreda arkitekto jaunak idatzi zuen. Eta 2023ko urriaren 9an, onespina 119 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen.

2023ko urtarrilaren 30ean, MAGNA GENERAL CONTRACTORS SL merkataritza-enpresak obra handiko lizentzia eskatu zion Zigoitiko Udalari eta eskabidearekin oinarritzko proiektua atxiki zuen. Proiektua Arabako Industri Ingeniariei Elkargo Ofizialak ikus-onetsi zuen 2023ko urtarrilaren 30ean eta KREAN S.COOP. ingeniariak estudioko kide Jorge Domínguez Urcelay ingeniari industrial jaunak idatzi zuen. Proiektuaren xedea da bezero anitzeko plataforma logistikoko bat eraikitzea (jarduera zehatza zehaztu gabe) Etxabarri-Ibiñako SAUI-3 sektoreko erabilera logistikoko partzelan, hau da, 6. poligonoko 1351. katastro-partzela berrian.

2024ko apirilaren 11n, P3 ZIGOITIA PARK SLU merkataritza-enpresak eskatu zuen pabiloi-biltegiko obra handiaren espedientean (114/2023) interesdun gisa sartzea; izan ere, partzelaren egungo jabea dela jakinarazi zuen.

2024ko apirilaren 11n, P3 ZIGOITIA PARK SLU merkataritza-enpresak 6. poligonoko 1351. katastro-partzelaren poliziaren zenbakia eskatu zuen.

SAUI-3an kale bakarra dago, Zigoitiko 6. poligonoko 1351., 1352., 1353., 1354. eta 1355. katastro-partzelei zerbitzua ematen diena.

Izenaren bilaketa inspiratzeko xedearekin toponimoa ABADELAUETA Elkarte Etnografikoari kontsultatu zitzaion, eta erantzuna "Andaluziaga" izan zen.

Aztertu dira adierazitako aurrekariak eta Etxabarri Ibiñako SAUI-3ko kale bakarra Andaluziaga kalea izendatzea proposatzen da. 6. poligonoko 1351. partzelaren poliziaren zenbakia 1 izango da.

Aztertu da 2024ko apirilaren 18an udal-arkitektoak egindako txostena.

Aztertu da 2024ko maiatzaren 30ean Idazkaritzak egindako txostena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.q) artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Aurrekarietan deskribatutako bide publikoaren izendapenari hasierako onespina ematea, hau da, Andaluziaga kalea, hori baita lekuaren toponimoa.

BIGARRENA. Izendapena jakinaraztea Etxabarri Ibiñako Administrazio Batzarrari, P3 ZIGOITIA PARK SLUri eta gainerako interesdunei HAMABOST eguneko epean beharrezkoak irizten dituzten alegazioak eta oharrak egin ditzaten.

HIRUGARRENA. HOGEI EGUNEKO informazio publikoko epea irekitzea eta iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, udal honen egoitza elektronikoan





[helbidea: <https://www.zigoitia.eus>] eta iragarki-taulan argitaratzea.

LAUGARRENA. Audientzia-izapidean eta informazio publikoko izapidean alegaziorik aurkezten ez bada erabakia behin betikotzat jotzea. Eta, hala badagokio, hori jakinaraztea administrazio publiko interesdunei eta udalerrian herritarrei zuzendutako zerbitzuak ematen dituzten erakundeei, enpresei eta organismoei (INE, posta-zerbitzua, enpresa elektrikoa, etab.).

585/2023 espedientea. 2024 urterako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari behin-behineko onespena emateko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Hasierako onspena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari. Horren hitzez hitzeko transkripzioa eranskin moduan atxiki da.

BIGARRENA. Espedienteari dagokion izapidetza eta publikotasuna ematea, Udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn argitaratuz, 30 egun balioduneko epean interesdun guztiek aztertu dezaten eta beharrekoak irizten dituzten erreklamazioak egin ditzaten. Halaber, erabakia interesdun guztien eskura egongo da Udaleko egoitza elektronikoan (www.zigoitia.eus).

HIRUGARRENA. Erabaki hau behin betikotzat jotzea aurreko puntuan adierazitako epea amaitzean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio; Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.3 artikuluari jarraikiz.

LAUGARRENA. ALHAOn argitaratzea aldatutako ordenantza fiskalen testu osoa, argitaratzen diren egunetik aurrera aplikatuko baitira.

ERANSKINA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

1. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 22.1.c) artikuluan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorriz, zerga hau eskatzen du, ordenantza honen arabera.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

2. ZERGAGAIA

3. artikulua

1.- Honakoek osatuko dute zergagaia:





Bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titulartasuna, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, gidabaimenean zehazten den helbidea udalerrri honetakoa denean.

2.- Zirkulaziorako ibilgailu egoki gisa joko dira dagozkien erregistro publikoetan matrikulatu diren eta bertan bajarik eman ez duten ibilgailuak.

Zerga honen ondorioetarako gaitzat joko dira, halaber, aldi baterako baimena eta matrikula turistikoa duten ibilgailuak.

3.- Ez zaie zerga hau ezarriko:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuei, nahiz eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastatutako atoi eta erdi atoei, baldin eta haien karga erabilgarria ez bada 750 kilogramo baino gehiagokoa.

3. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua

1.- Honakoak salbuetsiko dira zergatik:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetak funtzionario kreditatuak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari bai neurriari dagokionez ere. Era berean, Estatu Espainolean egoitza edo bulegoa duten Nazioarteko Erakundeen ibilgailuak, baita bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko anbulantziak eta gainontzeko ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, **desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude: (350 Kg baino gutxiagoko tara duen ibilgailua, eraikitze moduagatik lurralde lauan 45 Km orduko abiadura ezin badu gainditu eta desgaitasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko berariaz eraiki edo proiektatu bada (ez da nahikoa egokitua izatearekin).**

Era berean, zergatik salbuetsiko dira 14 zaldi fiskal baino gutxiago dituzten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai desgaituek gidatutako ibilgailuen kasuan bai desgaituak eramateko ibilgailuen kasuan ere.

Zergatik salbuetsita geldituko dira, era berean, guraso ahala, tutoretza edo kuratela dela-eta, ehuneko 65 edo gehiagoko minusbaliotasun maila duen pertsona bat zaintzeko ardura dutela egiaztatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko aldi berean ibilgailu bat baino gehiago duten subjektu pasibo onuradunei.

Hizki honetan adierazitakorako, honako hauek hartuko dira desgaitasunen bat duten pertsonatzat:

a') Ehuneko 33ko edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun-maila onartuta duten pertsonak, mugikortasun mugatuko egoeran baldin badute. Hala dela ulertuko da, mugikortasunaren azken muga ehuneko 25ekoa edo gehiagokoa lortzen bada, 888/2022 Errege Dekretuak, urriaren 18koak, desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, Mugikortasun Jardueretako





Mugetarako (BLAM) azpi-baremoan ezarritakoaren arabera.

b') Ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasun-maila duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan jasotako pertsoneri, baldin eta mugikortasun murriztua badute eta mugikortasunaren azken muga ehuneko 75ekoa edo handiagoa bada urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak, desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak jasotzen duen Mugikortasun Jardueretako Mugaketen azpi-baremoan (BLAM), ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskalen muga, baldin eta ibilgailua gurpildun aukiarekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiri garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, baldin eta, gidariarena barne, bederatzi leku baino gehiago badituzte.

g) Nekazaritzako ikuskatze txartela duten traktore, atoi, erdi atoi eta makinak.

2.- Artikulu honetako e) eta g) idatz-zatietan aurreikusten diren salbuespenek izaera arautua eta erreguzkoa dute eta eskumena duen udal-organoak berariaz emandako administrazio-egintza baten bitartez emango zaizkie eskatutako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboeri, eurek eskatzen badituzte. Eskarian, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobaria jasotzeko arrazioa adieraziko dira eta, horrekin batera, agiri hauek eramango dira:

- Desgaituen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatutako ibilgailuen kasuan:
 - Eskatzailearen zinpeko aitortpena, beste ibilgailu baterako salbuespenik ez duela adierazten duena.
 - Ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren egiaztatzea
 - Arabako Foru Aldundiak edo eskumena duen organismoak desgaitasuna aitortzeko emandako agiria. Ez da nahikoa titulu izango balorazio taldeek emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.
 - Hala badagokio, mugikortasunaren eremua mugatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, eskumena duen organoak emana.
 - Gidabaimena (alde bietatik).
- Desgaituak eramateko ibilgailuen kasuan:
 - Aurreko puntuan eskatzen direnak.
 - Ibilgailuaren erabilera justifikatzeko agiriak, zerga ordaintzen den udalean aurkeztu behar direnak. Hauek izango dira:
 - Interesdunaren aitortpena, gidariaren izen-abizenak eta NANA adierazita.
 - Gidariaren gidabaimena.
 - Guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza egiaztatzea.
- Traktoreen, atoiaren, erdi-atoiaren eta nekazaritzako ikuskapen-kartila duten makinaren kasuan:
 - Zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatua.
 - Ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren egiaztapenaren fotokopia konpultsatua.
 - Ibilgailuaren titularraren izenean egindako nekazaritzako inskripzio txartelaren fotokopia konpultsatua.

Salbuespen hau ez da aplikatuko baldin eta udal administrazioak egiaztatzen badu nekazaritzarako traktore, atoi edo erdi-atoiaren nekazaritzakoak ez diren produktu edo salgaiak garraiatzen direla edo uste badu ez direla beharrezkoak horrelako ustiatzeetan.

3.- Alkatetzaren ebazpen baten bitartez salbuespena onartzen bada, agiri bat egingo da eman dela egiaztatzeko.

5. Artikulua

1. Zergaren kuota osoaren hobari bat ezartzen da familia ugariaren titularrentzako:





- ehuneko 90koa, familia unitatearen kide bakoitzearen **urteko diru-sarrerak** gutxieneko soldata interprofesionala bider 1,25 edo gutxiagokoak direnean.
- ehuneko 40koa, familia unitatearen kide bakoitzearen **urteko diru-sarrerak** gutxieneko soldata interprofesionala bider 1,5 edo gutxiagokoak direnean.

Baldin eta ondorengo baldintza hauek betetzen baditu:

- Ibilgailuaren jabea aita edo ama izatea.
- Salbuespen hori familia unitatearen ibilgailu bati baino ez zaio emango.

Atal honetan finkatutako ondorioetarako, ondokoa ulertuko da:

- I. Urteko etekinen arabera, **aurrezkien zerga-oinarria gehi zerga-oinarri orokorra**, honako kasuan **bakarrik gutxituko dena**: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 71. artikuluan aipatutako **konpentsazio pentsioak eta jakiengatik urtero jasotakoak**. Aipatutako Foru Arauan aurreikusitako beste murrizketak ez dira ezarriko. Horretarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, urteko etekin horiek egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.
- II. Familia unitatea, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 100. artikuluan zehaztutakoa izango da.

Hobariak jasotzeko aurretiaz eskaera egin beharko da. Eskaerarekin batera ondoren zehaztutako dokumentuak aurkeztuko dira, urte bakoitzeko uztailaren eta urriaren arteko epealdian:

- Familia ugariaren egiaztageria.
- Zirkulazio baimena eta ibilgailuaren txartel teknikoa.
- Zerga hobariaren aurreko urteko PFEZaren aitorpena.

Hobari hori urte batean jaso ahal izango da. Dena den, subjektu pasiboak epe hori luzatzea eska dezake, baldin eta idatz-zati honetan araututakoak betetzen jarraitzen badu.

2. Zergaren kuota osoaren ehuneko 75eko hobaria ezartzen da, ondorengoentzat: ibilgailu hibridoaren jabeentzat (motor elektriko-gasolinadunak, elektriko-dieseldunak edo elektriko-gasunak), baldin eta ibilgailuak fabrikatik homologatuta badatoz, eta kutsadura-emisioak gutxitzeko gailu katalizatzaileak, ibilgailuaren klase eta modelora egokituak, baldin badituzte.

Hobari hori ofizioz aplikatuko du udalak, eta 6 urteko epea izango du.

3. Zergaren kuota osoaren ehuneko 95eko hobaria ezartzen da ibilgailu elektrikoaren jabeentzat.

Hobari hori ofizioz aplikatuko du udalak, eta 6 urteko epea izango du.

4. Ibilgailu historikoen erregelamendua onartzen duen uztailaren 14ko 1247/1995 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, zergaren kuota osoaren ehuneko 100eko hobaria ezartzen da historikotzat katalogatutako ibilgailuen titularrentzat, betiere ibilgailu horiek Trafiko Buruzagitzaren Ibilgailu Historikoen Erregistroan agertzen badira. Hobari hori erregutua da, eta, beraz, baliatu ahal izateko, beharrezkoa izango da titularrek izaera historikoa dutela eta Trafikoko Ibilgailu Historikoen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

6. artikulua

Legeak berariaz kontrakorik aurreikusten ez badu, zerga-onurak ematea eskatu egin behar da, eta, beraz, Alkatetzari zuzendutako eskabide baten bidez eskatu beharko dira. Eskaerarekin batera, eskatzaileak nahikotzat jotzen duen arrazoibidea aurkeztu beharko da.





Oro har, zerga-onurak emateak ez du atzeraeraginezko izaerarik izango, eta, beraz, interesdunak eskaera egin ondoren tributuaaren sortzapena lehen aldiz gertatzen den unetik hasiko dira ondorioak gauzatzeko.

Zerga-onuraren eskaera oro ukatuko da, baldin eta subjektu pasiboak zerga-betebeharrak egunean ez baditu hura egiteko unean. Ukatzeko ebazpena arrazoi horretan oinarrituko da berariaz, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

4. SUBJEKTU PASIBOAK

7. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, bai pertsona fisikoak, eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren erakundeak, beti ere ibilgailuaren zirkulazio-baimenean titular gisa agertzen badira, eta testamentu-boterea gauzatzeko edo botere osoko usufruktua gauzatzeko zain dauden oinordetzak, baldin eta Foru Arau honetako 1. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

5. KUOTA

8. artikulua

1.- Zerga tarifen taula honen arabera eskatuko da:

IBILGAILU MOTA: A) Turismoak	
Potentzia	Kuota
8 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	14,77 euro
8 eta 11,99 zerga-zaldi bitartekoak	38,86 euro
12 eta 15,99 zerga-zaldi bitartekoak	84,14 euro
16 eta 19,99 zerga-zaldi bitartekoak	109,55 euro
20 zerga-zaldi baino gehiagokoak	125,42 euro

IBILGAILU MOTA: B) Autobusak	
Potentzia	Kuota
21 plaza baino gutxiagokoak	100,93 euro
21 eta 50 plaza bitartekoak	138,77 euro
50 plazatik gorakoak	186,40 euro

IBILGAILU MOTA: C) Kamioiak	
Potentzia	Kuota
1.000 kg baino karga erabilgarri txikiagoa dutenak	49,46 euro
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria	97,43 euro
2.999 kg eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria	138,77 euro
9.999 kg baino karga erabilgarri handiagoa	173,46 euro

IBILGAILU MOTA: D) Traktoreak	
Potentzia	Kuota
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	20,66 euro
16 eta 25 zerga-zaldi bitartekoak	32,48 euro
25 zerga-zaldi baino gehiagokoak	97,43 euro

IBILGAILU MOTA: E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak	
Potentzia	Kuota
1.000 kg baino karga erabilgarri gutxiago eta 750 kg baino karga erabilgarri gehiago dutenak	20,66 euro
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	32,48 euro





2.999 kg baino karga erabilgarri handiagoa dutenak	97,43 euro
--	------------

IBILGAILU MOTA: F) Bestelako ibilgailuak

Potentzia	Kuota
Ziklomotorrak	5,17 euros
125 cc bitarteko motozikletak	5,17 euros
125 eta 250 cc bitarteko motozikletak	8,86 euros
250 eta 500 cc bitarteko motozikletak	17,72 euros
500 eta 1.000 cc bitarteko motozikletak	36,14 euros
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	72,77 euros

2.- Ibilgailu-mota zehazteko, arategietan ezarritakoa hartuko da kontuan; horretaz gain, honako arauok ere kontuan izan beharko dira:

a) Ibilgailu bat furgonetatzat hartuko da turismo-ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen denean, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, honakoetan izan ezik:

Lehena.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusari dagozkion zergak ordainduko dira.

Bigarrena.- Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagozkion zergak ordainduko dira.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindrada-eraberritzearen arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, arrastatze-potentzia daramanak eta atoi eta erdi atoi arrastatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotore, atoi eta erdi atoi kasuan, duten edukiera dela-eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako egokitzen joko dira dagokion egiaztagiria Industria Ordezkaritzak ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, zirkulatu dauden unetik beretik.

e) Bide publikoetatik trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek eraman edo arrastatu beharrik gabe ibil daitezkeen makina autopropulsatuek, traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Traktokamioiei, obra makinei eta zerbitzuetako traktoreei artikulatu honetako 1. paragrafoko D tarifa (traktoreak) ezarriko zaie.

g) Lur orotako ibilgailuak turismotzat sailkatu behar dira.

6. EZARPENALDIA ETA SORTZAPENA

9. artikulua

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailuen lehen eskuratze edo baja kasuan salbu. Horrelakoetan, zergaldia eskuratze hori gertatzean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan baja ematean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga, zergaldiaren lehen egunean sortuko da.

3.- Ibilgailuren bat lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko eskuratze-egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan, edo hala badagokio, ibilgailuaren baja ematen den egunaren arteko aldiari dagokiona.

4.- Ibilgailuaren baja ematen denean, zergaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko urtarilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan ibilgailuaren baja ematen den egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan.

7. VII. KUDEAKETA





10. artikulua

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta, halaber, zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den herriko udalari dagokio.

11. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

12. artikulua

Udalak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztatzea.

13. artikulua

Zerga ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da, ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

14. artikulua

1.- Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun-egiaztatzea edo ibilgailuaren behin betiko baja eskatzen dutenek zerga ordaindu dutela egiaztatzea beharko dute aldez aurretik.

2.- Ibilgailuen titularrek ibilgailuak eraberritu dituztela adierazten dutenean Trafiko Buruzagitzan, baldin Zergaren ondorioetarako sailkapena aldatu edo, eskualdaketa kasuan, ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den egoitza aldatzen edo ibilgailu horien baja ematen bada, Trafiko Buruzagitzan aldez aurretik kreditatu beharko da Zerga kobratzean aurkeztutako azken ziurtagiria. Hala ere, kudeaketa eta ikuskatze bidez, kontzeptu horregatik sortutako, likidatutako eta kobratzean aurkeztutako eta iraungi gabeko kontzeptuagatik zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal da. Egiaztatze bidez, betebeharrak salbuetsiko da hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko baje kasuan.

3.- Trafiko Buruzagitzak ez ditu ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, aldez aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

15. artikulua

Matrikulazio berririk bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketarik bada, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren 30 egun balioduneko epean, interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Zigoitiko udaletxean, zergaren erroldan sartzeko:

- a) Gidabaimena.
- b) Ezaugarri teknikoaren egiaztatzea.
- c) NAN edo IFK.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkatetzak edozein aldaketa sartu ahal izango du ordenantza honetan, nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketaren ondorio baina ez badira eta baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea badakarte. Aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berrets ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergatik, salbuetsita dauden ibilgailuek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1.d) artikuluaurreko idazketa aplikatzearen ondorioz ez dituzte betetzen aipatutako manuan adierazitako salbuespenerako ezarritako baldintza eta foru arau honen idazketa berrian adierazitako araua aplikatuko zaio.

AZKEN XEDAPENA





Ordenantza hau behin betiko onartu zen bertan agertzen den egunean; indarrean sartuko da argitaratzen denetik eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

76/2024 espedientea. 2024 urtean kontzejuetan obrak egiteko dirulaguntzak emateko irizpena.

Aldekoak

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Aztertu dira udalerriko kontzejuak obrak egiteko eskatutako dirulaguntzak, 2024 urteari dagokion dirulaguntza deialdiaren babesean, zeina 2024ko urtarrilaren 29ko 2024-0036 Alkatetzaren Ebazpen bidez onartu zen.

Hamazazpi dirulaguntza eskabide aurkeztu dituzte honako administrazio batzar hauek: Acosta/Okoizta, Buruaga, Eribe, Gopegi, Manurga, Murua, Olano, Ondategi eta Zestafe.

Zigoitia udalerriko kontzejuei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza espezifiko arautzailearen 6. artikuluan dirulaguntzak emateko aurreikusten den izapidearekin bat etorritz.

Kontuan hartu da dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluan ezartzen dena, dirulaguntzen publikotasunari dagokiona.

Zigoitia udalerriko kontzejuei dirulaguntzak emateko ordenantza espezifikoaren 4. artikulua aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. Zigoitia udalerriko kontzejuen obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak behin behinean emateko proposamena onestea, 2024 ekitaldiari dagozkiona eta erabaki honen I. Eranskinean atxiki dena.

BIGARRENA. Zigoitia udalerriko kontzejuei, 2024ko ekitaldiko deialdiaren barruan, erabaki honen I. eranskinean jasotako obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak behin-behinean ezesteko proposamena onestea.

HIRUGARRENA. Kontzejuei 10 eguneko epea ematea egoki irizitako alegazioak aurkez ditzaten, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA. Dirulaguntzak indarrean dagoen udal-aurrekontuko 943.734.000 kontu-sailaren kargura ordainduko dira, "kontzejuentzako inbertsio-dirulaguntza" gisa. Dirulaguntza horren esleipena 175.000 eurokoa da 2024 ekitaldirako.

BOSGARRENA. Eskabidea aurkeztu duten erakundeei erabaki hau jakinaraztea eta adieraztea erabaki honek ez duela administrazio-bidea eteten eta izapide hutseko egintza denez, ebazpen honen aurka ezin dela errekurtsorik jarri, egokitzat jotzen dutena jartzeko aukera alde batera utzi gabe.

SEIGARRENA. Behin betiko emakida onartu ondoren emandako dirulaguntzei buruzko informazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari bidaltzea, dirulaguntza eman eta hurrengo hilabete naturala amaitu baino lehen.

I. ERANSKINA:

ADMINISTRAZIO BATZARRAK	ESKATUTAKO OBRAK	OBRA MOTA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA	BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	DIRULAGUNTZAREN PROPOSAMENA
GUZTIRA	0,00 €		369.217,38 €	64.432,29 €	172.849,62 €
ACOSTA/OKOIZTA 1	Okoiztatik S. Pedroko baserrietarako (Suchares) partzela-	4	34.986,02 €	22.745,80 €	12.240,22 €





	bidearen zoladura amaiteza				
ACOSTA/OKOIZTA 2	Euri-urak bideratzeko saretoa instalatzea	1	2.976,60 €	0,00 €	2.083,62 €
ACOSTA/OKOIZTA 4	Kirol-kantxan hiri-altzariak instalatzea	3	2.268,75 €	0,00 €	1.134,38 €
BURUAGA 1	Buruagatik Eribera doan bidea konpontzea	4	84.641,92 €	0,00 €	33.856,77 €
ERIBE 1	Eribetik Buruagara doan bidea konpontzea	4	37.324,66 €	0,00 €	14.929,86 €
	Eribe-Buruaga-Berrikano-Gopegi bidegurutzean seinaleztapena, goragunea eta ispilua jartzea	1	10.276,89 €	0,00 €	7.193,83 €
MANURGA 1	Ikastolako komunak birmoldatzea	2	34.759,91 €	22.677,40 €	12.082,51 €
MANURGA 2	Santo Tomaseko aintzinako bidexka eta Tejerako bidexkaren zati bat berreskuratzea	1	6.380,00 €	0,00 €	4.466,00 €
MANURGA 3	Murubideko zubi zaharra zaharberritzea	2	15.948,62 €	0,00 €	9.569,17 €
MURUA 1	Zentro sozialari atxikita atarape itxi bat eraikitzea	2	103.502,49 €	0,00 €	62.101,49 €
OLANO 1	Olanon seinaleztapena	1	1.845,25 €	0,00 €	1.291,68 €
ONDATEGI 1	Administrazio batzarraren jabetzako eraikinen fatxadak konpontzea eta muralak egitea [garia jasotzeko pabiloia eta ikuztegia]	2	7.623,00 €	0,00 €	4.573,80 €
ZESTAFE 1	018-007-106 bidea asfaltatzea	4	25.523,67 €	19.009,09 €	6.514,58 €
ZESTAFE 2	Hainbat guneetan bide-markak margotzea	1	1.159,60 €	0,00 €	811,72 €

II. ERANSKINA:

ADMINISTRAZIO BATZARRA	OBRA	EZESTEKO ARRAZOIA
	Bideak eskokatzea	Bideen mantenuari dagozkion lanak, hala nola eskokatze-lanak diruz lagundu ezin diren obrak direla irizten da.
GOPEGI 1	Kultura-zentroaren estalkian eta aparkaleku publikoetan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak egitea	Kultura-zentroaren estalkian eta aparkaleku publikoetan kokatutako instalazio fotovoltaikoak 455 Wp-ko 235 panel ditu eta horietatik denera 106.929 Wp eskuratzen dira. Potentzia hori kultura zentroak behar duena baino askoz handiagoa dela irizten da, eta, hortaz, komunitate energetiko batera zuzenduta dagoela. Komunitate energetikoak ez dira dirulaguntza jaso dezaketen pertsonak oinarriak arautzen dituen ordenantzen 2. artikulua araberara.





GOPEGI 2	Bolatokiaren eta garbitegiaren estalkietan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa egitea	Bolatokiaren eta garbilekuaren estalkietan kokatutako instalazio fotovoltaikoak 455 Wp-ko 62 panel ditu eta horietatik denera 28.210 Wp eskuratzen dira. Potentzia hori bolatokiak eta garbilekuak behar dutena baino askoz handiagoa dela irizten da eta hortaz, komunitate energetiko batera zuzenduta dagoela. Komunitate energetikoak ez dira Dirulaguntza jaso dezaketen pertsonak oinarriak arautzen dituen ordenantzaren 2. artikulua arabera.
----------	---	---

364/2024 espedientea. Gorbeako herri-basoan animalien 2024ko osasun-plana onesteko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Alkate jaunak Gorbeako herri-basoko animalien 2024ko osasun-programa aurkeztu du. Programa ABERE ZERBITZU TEKNIKOAK, KOOP S. enpresak idatzi du, hau da, Gorbeako herri-basoan bazkatzen duen ganaduaren txertaketa eta kontrolaren osasun-planaren jarraipena egiteaz eta hura egikaritzeaz arduratzen den albaitaritzaz-zerbitzuen enpresak.

Halaber, jakinarazi du osasun-plan hori formalki onartu behar dela, legezko estaldura emango dien tresna bat izateko. Hala, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiko, ABEREko albaitaritzaz-zerbitzuetako, onura publikoko mendietako eta abeltzaintzako ustiatagietako ordezkariak parte hartzen duten lantaldeak nahitaezkoztat jotzen dituen txertoak Zigoitian dauden abeltzaintzako ustiatagiei eskatu ahal izateko baimena izango dute.

Informazio-batzarra osatzen duten kideek, aho batez, aldeko txosten bat igorri dute Udalbatzak onartu dezan. Txostenak honako hau dio:

Kontuan hartu da Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 33. artikulua honako hau dioela: *"Mota guztietako mendi, baso eta baso baliabideen antolamendu iraunkorra titularrei dagokie, elementu horiek beren ingurumen, babes, gizarte eta ekonomi eginkizunak buru ditzaten"*.

Zigoitiko Udala onura publikoko 376 mendiaren jabea da eta bertan herri-landen aprobetxamendua egin ohi da.

Gorbeako herri-basoan bazkatzen duen ganaduaren osasun-maila eta maila zooteknikoa hobetzeko osasun-programak ezartzea beharrezkoa dela ikusi da. Horien xedea da herri-larreak erabiltzen dituzten ustiatagietako azientari eragiten dioten zenbait gaixotasun prebenitzea eta kontrolatzea.

Aztertu dira aurkeztutako aurrekariak eta Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. Gorbeako herri-basoko animalien 2024ko osasun-plana onestea Testua erabakiaren eranskinean atxiki da.

BIGARRENA. Erabakia jakinaraztea 2024an erabilera publikoko 376 mendiko herri-larreak erabiltzeko eskaera egin duten abeltzaintzako ustiatagiei.

HIRUGARRENA. Erabaki hau Arabako Foru Aldundiko mendien zerbitzuari eta ABERE ZERBITZU TEKNIKOAK, KOOP.S. enpresari igortzea.

LAUGARRENA. ALHAOn eta udal-webgunean argitaratzea.

ERANSKINA:





GORBEIAKO HERRI LURRETAKO ABEREEN OSASUNeko PROGRAMA 2024rako

1. Sarrera

Profilaxi programak ezarri eta exekutatzekahalbidetzen du herri lurren maila sanitarioa eta zooteknikoa hobetzea eta, ondorioz, ustategietako abeltzaintza produkzioena eta haien errentagarritasunarena, beren produktuen produkzio maila eta osasun maila handitzen baitira.

Honela lor daiteke hori:

- Sektorea bera inplikatur eta haren konpromisoa izanik gaixotasunen aurka egin eta gaixotasunak erazteko orduan.
- Osasun ekintza prebentiboak finkatur gaixotasunak agertzeko eta zabaltzeko arriskuaren aurrean.
- Zerbitzu teknikoaren euskarriaren bidez, horiek diseinatu eta haien jarraipena egiteko
- Horiek ezarri eta kudeatzean eraginda dauden osasun erakunde eta administrazioen laguntzaz.

Udal honek 2024an garatu beharreko jarduerak deskribatzeko programa hau idatzi da, Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailari eskabidea aurkezteko asmoz, Arabako Lurralde Historikoan abere-arrazak hazteko, abere arrazak hazteko, abere osasunerako eta abere ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzekolaguntzen deialdiko abereen osasuneko programak kudeatzekolaguntza lerroaren barruan. Deialdi hori Foru Gobernuaren Kontseiluarenmaiztaren 7ko 263/2024 Erabakiaren bidez onartu zen, eta ALHAOn argitaratu zen, 57 zenbakian, 2024ko maiatzaren 22an.

2. Helburuak

- Behi azizuden osasun egoera hobetzea, zenbait gaixotasun prebenituz eta kontrolatur, haien abere ekoizpenak eta, beraz, errentagarritasun ekonomikoa kuantitatiboki eta kualitatiboki optimizatzeko.
- Ganadutegien osasun egoeraren monitorizazioa eta haien estatusaren administrazio aitortpena, IBR-ren kasuan.

3. Aplikazio-eremua

Gorbeiaiko herri lurak osasun unitatetzathartzen da; beraz, haren abereen osasuneko programan ezartzen diren neurriak udal kudeatzaile guztiek hartu behar dituzte beren gain, eta herri lur horietako aprobetxamenduakpartekatzen dituzten ganadutegi guztietan ezarri behar dira.

4. Osasun programa gauzatzea

BVD, IBR, paratuberkulosi, neospora eta trikomonaren aurka borrokatzeko programa.

5. eta 6. puntuetan deskribatzen den moduan egingo da.

Ganadutegien jarraipena.

Osasun programaren ardura duen albitari taldeak jarraipena egingo du, bai klinikari dagokionez, bai programaren gai diren gaixotasunetatik edozeinen susmoa eragiten duten abortuei dagokienez.

5. Programaren gai diren gaixotasunak

5.1. Paratuberkulosia (aurrerantzean PTBC).





Paratuberkulosiaren aurkako borrokaren berariazko helburuak:

- Kutsatutako ustiategiak hautematea.
- Abere irazleak hautematea.
- Gaixotasuna artaldean zabaltzea saihestea.
- Gaixotasunaren ondorioak minimizatzeakutsatutako ustiategietan.
- Gaixotasunak eragin ez dien ustiategietan infekzio arriskua minimizatzea.
- Gaixotasunaren esanahia zabaltzea.
- Ustiategietan maneiurako jarraibideak aplikatzea, arrisku mailaren arabera.
- Gaixotasun horren aurrean osasun estatusa monitorizatzea

Kontuan hartu beharreko faktore epidemiologikoak:

Ptbc bakterio gaixotasun bat da, fase isil edo azpikliniko batekin hasten dena, eta pisua eta esne ekoizpena pixkanaka galtzen dira. Ondoren fase kliniko batera pasatzen da, aldizkako beherakoarekin eta itxurazko pisu galerarekin, beherako kroniko ugari baten ondoren hil arte.

Gaixotasunaren kronikotasunak esan nahi du abere irazleak (gaixotasunaren fase klinikoa, gorozkietatik bakterioak irazten dituen) animalia helduak izan ohi direla.

Animaliak kutsatzeko bide nagusia gorozki-ahozkoa da, ura, esnea edo kutsatutako animalien gorozkiekin kutsatutako edozein elikagai hartuta.

Abereak batez ere bizitzako lehen 12 hilabeteetan kutsatzen dira, eta helduaroan garatzen dute gaixotasuna.

Gaixotasunaren sintoma klinikorik ez duten animalia eramaile asintomatikoak hautematen dira.

Proba diagnostikoak:

- Paratuberkulosiaren ELISA urteko serologia (antigorputzak hautematea) 24 hilabetetik gorako abereei. Hainbat egoera gerta daitezke:
 - o **Azken bi urteetan** egindako paratuberkulosiaren Elisari eta PCR analisi guztiak **negatiboak izan badira**, ganadutegi horiek **ez dira hurrengo 3 urteetan** aztertuko.
 - o **Aztertu gabeko aurreko hiru urteen ondoren**, ganadutegian egingo dira probak, eta **negatibo** ematen badute, **hurrengo 3 urteetan** ez dira aztertuko.
 - o Herri lurrak partekatzen ez dituzten ganadutegiek, **urte biz PCR analisi guztiak (ELISA + ondoren egindakoak) negatiboak** izan badira, **urtebete utzi ahal izango dute aztertu gabe**.
 - o Aurreko egoeretara iritsi arte, osasun planetan sartzen diren **ustiategi berriek 24 hilabetetik gorako animalia guztiak aztertuko dituzte**.
- Paratuberkulosiaren Elisari positibo eman duten animalia guztiei eginkarieratan PCR egingo zaie, eta PCRan negatibo ematen dutenei, ahal bada, 6 hilabetera errepikatuko zaie.
- Beti hartuko dira laginak ELISA egiteko beherakoa iraunkorra denean edo pisua justifikatu gabe galtzen denean.

Neurriak eta ekintzak:

- PCR positiboa duten abereak gehienez 30 eguneko epean hiltzera bideratuko dira,





eta bitartean animaliaaren isolamendua ziurtatuko da.

- Salbuespen gisa, ustiatzean bertan gizendu ahal izango da, baldin eta bizitzeko diren animalien isolamendua bermatzen bada. Kasu horretan ez litzateke kalte-ordainik jasoko.
- Ahal den neurrian, titia kendu zaien txahalak bereizita eduki behar dira urtea bete arte, kutsatzeko arriskua murrizteko.
- Ohiko zaintza abere irazleen diagnostiko kliniko goiztiarra egiteko.
- Ama negatiboen abereak baino ez birjartzea.
- Instalazioak titia kendu zaien animaliek helduen eginkariekin kontakturik izan ez dezaten diseinatzea.
- Oheak kentzeko, garbitzeko eta kontu handiz desinfektatzeko programa, arreta berezia jarrita erditze eremuari.
- Minden kudeaketa egokia, larratzekoitxaronaldiak gordez, dagoen arriskuaren arabera.
- Edateko tokiak behar bezala egokitzea, gaixotasunik ez kutsatzeko.

Biosegurtasuna animaliak mugitzean:

- Abere berri guztiak, 18 hilabetetik gorakoak, herri lurretan sartuko dira gaixotasunaren aurrean ELISA emaitzak negatiboak badira.

Ustiatzearen sailkapena:

Sailkapen hori egindako laborategiko proben emaitzaren eta proba horiei buruz dugun informazio epidemiologikoaren arabera egiten da.

0 maila

- Paratuberkulosiaren aurka borrokatzeko osasun plana bete ez duten ganadutegiak.
- Informazio epidemiologikorik gabeko ganadutegi berriak.

1 maila

- Azken bi urteetan PCR positiboa izandako abereak hauteman zaizkien ganadutegiak.

2 maila

- Azken bi urteetan ELISAn positibo eman duten abereen ehuneko 15etik beherako seroprebalentzia duten ganadutegiak, PCR positiborik ez dutenak.

3 maila

- ELISAn urtebeteko laginketa negatiboa izan duten eta azken bi urteetan PCR positiborik izan ez duten ganadutegiak

4 maila

- ELISAn urte bitan laginketa negatiboa izan duten eta azken bi urteetan PCR positiborik izan ez duten ganadutegiak

5.2. Trikomona.

Trikomonaren aurkako borrokaren berariazko helburuak:

- Gaixotasunak erasandako ganadutegiak hautematea.





- Zezen positiboak hautematea.
- Gaixotasunaren ondorio kaltegarriak gutxitzea infekzio aktiboa duten ustategietan.
- Gaixotasuna artaldean eta ondoko ganadutegietan zabaltzea saihestea.
- Gaixotasunaren ezagutzazabaltzea.
- Artaldeen osasun estatusa monitorizatzea.
- Biosegurtasun neurriak ezartzea etorkizunean trikomonik gabeko ustategiak lortzeko.

Kontuan hartu beharreko faktore epidemiologikoak:

- Behien trikomonosia behien sexu transmisiozko gaixotasun bat da, ugalketa akats goiztiarra (abortua) eragiten duena, eta ohikoa da ustiapen sistema estentsiboetan, zeinetan estaltze naturala erabiltzen baita.
- Behien trikomonosiaren eragile etiologikoa *Trichomonas foetus* da, protozoo bizkarroi bat, eta aparatu genitalean kokatzen da. Bizkarroia zezenaren barrunbe prepuzialean kokatzen da nagusiki, eta zakileko mukosan eta atzeko mukosa prepuzialaren alboko eremuetan kontzentratzen da gehienbat. Bizkarroia zakilaren epitelio ezkatatsu estratifikatuaren eta prepuzio proximalaren gainazalean kokatzen da zehazki, fornixaren inguruan. Ostalariaren (zezena) adinak aurrera egin ahala, epitelio horrek tolestura ugari izaten ditu, eta kriptak gehiago garatzen dira, eta bizkarroia behar bezala gara daiteke bertan, mikrogiro egokia sortzen baita.
- Emearen kasuan, bizkarroia batez ere zerbixaren tolesturetan pilatzen da, baina infekzioa automugatzaillea da, eta bizkarroia aldi berean desagertu egiten da emeen ugaltze traktuaren eremu guztietatik, gutxienez 90-95 eguneko aldiaren ondoren.
- Kutsatutako animaliak zuzenean kutsatzen ditu animalia osasuntsuak, estaltzean. Animaliak maneiatzeari lotutako ohitura jakin batzuek infekzioaren transmisioa errazten dute eta kontrolatzea zailtzen dute, hala nola partekatutako hazitarako aziendak erabiltzea, herri larreak erabiltzea eta erosi berri diren animaliei proba diagnostikorik ez egitea.
- Diagnostikoari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea abeltzaintza estentsiboko inguruetan eta estaltze naturala erabiltzen denetan, trikomonosi genitalaren diagnostikoa batera egin behar dela.
- Prebentzio eta kontrol programak infektatutako hazitarako zezenak zehaztasunez identifikatzeko eta ezabatzeko gaitasunean oinarritzen dira; beraz, funtsezkoa da laginak hartzeko eta laborategian agentea detektatzeko prozedura normalizatuak eta baliozkotutak betetzea.

Laginak prepuzioa arraspatuz hartzen dira.

Proba diagnostikoak:

Gutxienez, **14 egunez bereizitako 2 proba** egingo dira, **estaltzea baino 21 egun lehenago**, honako kasu hauetan:

- Herri lurretara igo behar duten **ar ugaltzaileei**, igo eta jaitsi aurretik egingo zaizkie.
- Aurreko urtean **ugalketarako emeak** erosi dituzten ustategietako hazitarako **zezen** guztiei (12 hilabetetik gorako emeak).
- Herri lurretako osasun planean lehen aldiz sartzen diren ustategietako **ugalketarako ar guztiei**.

ADI: azken urtean erositako ugaltzaileak ezin izango dira herri lurretara joan.

Neurriak eta ekintzak:

- Ganadutegiek ustategian dituzten zezenak aitortu beharko dituzte.





- Positiborik agertuko ez balitz, protokolo honekin jarraituko genuke talde teknikoak berrikustea erabaki arte.
- Zezen positiborik badago, ez da zezenik herri lurretara igoko, gutxienez 2 urtez, eta bi urte horietan proba egin beharko zaie Gorbealaraazienda igotzen duten ustiategi guztietako zezen guztiei; ondoren, egoera berriz aztertuko da.
- Zezen positiboak hiltzeko edo gizendegira saltzeko erabiliko dira, baina ustiategian egon ahal izango dira denbora batez, infektatuta egoteko arriskua duten eta hutsik dauden norberaren behiekin. Epe hori ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, talde teknikoarekin alde aurretik adostutako salbuespenezko egoeretan izan ezik.
- Tricomonan positiboa eman duen zezenen bat duten ustiategietan:
 - Erditutako behiak estali gabe utziko dira 90 egunez eta Trikomona gabeko zezen batek estaliko ditu.
 - Kutsatuta eta hutsik egoteko arriskua duten behiak ustiategiko zezen zikinarekin intseminatu edo estaliko dira.
 - Horrela ernaltzen ez diren behiak hiltzera bideratuko dira.

Biosegurtasuna animaliak mugitzean.

- Hazitakoak erostea:
 - Ugaltzaile zentro batetik.
 - Trikomona gabeko ustiategietatik (1).
 - Berrogeialdia egin ondoren, emaitza negatiboa izango duen azterketa bat helburuko ustiategian.
 - 10 hilabete baino gutxiagoko zekorrak.
- Trikomona gabeko ustiategietan emeak erostea.
- Trikomona gabeko ustiategietan eme ernalduak erosten badira, eme horiek ezin izango dira ustiategiko zezenarekin estali erdizetik 90 egun igaro arte.
- Eme hutsak trikomona gabeak ez diren ustiategietan erosten badira, intseminazio bidez ernaldu beharko dira, edo haientzat bakarrik den zezen batekin, zeina gero trikomonari duen aztertuko den.

(1) Trikomona gabeko ustiategizatjotzen dugu:

- Ugalketarako hazitakorik ez duena eta erabiltzen ez duena.
- Baldin badituzte, bi urtez jarraian trikomona probak egin dizkietenak, emaitza negatiboekin, eta beren mugimenduetan lehen aipatutako biosegurtasun neurriak bete dituztenak.

5.3. BVD, behien beherako birala

BVDren aurkako borrokaren berariazko helburuak:

- Gaixotasunak erasandako ganadutegiak hautematea.
- PI hautematea (BVD Atg-ren bi proba diagnostikotan positibo eman duten animaliak, gutxienez 21 eguneko tartearekin).
- Gaixotasunaren ondorio kaltegarriak gutxitzea infekzio aktiboa duten ustiategietan.
- Gaixotasuna artaldean eta ondoko ganadutegietan zabaltzea saihestea.





- Gaixotasunaren ezagutzazabaltzea.
- Artaldearen osasun estatusa monitorizatzea.

Kontuan hartu beharreko faktore epidemiologikoak:

Behien beherako birala (DVB) behi aziendaren infekzio bat da, hainbat forma kliniko dituen pestivirus batek sortua, kasu azpiklinikoetatik abortuak, antzutasuna, immunoezabatzea eta, modu ikusgarriagoan, hilgarria den mukosen gaixotasuna eragin ditzaketen kasu akutuetaraino.

DVB birusak behi haurdun baten karendun hesia ere zeharka dezake eta fetua infektatu, enbrioien heriotzak, berezko abortuak eta jaiotza inguruko heriotzak eraginez. Oso garrantzitsua da infekzio iraunkorra duten abereak (PI) jaiotzeko duen gaitasuna. Animalia horiek, askotan, oharkabean pasatzen dira, eta infekzio iturri handia dira artaldearentzat.

Txerto biziarekin txertatzen EZ duten ustiategietako proba diagnostikoak:

- **Atc anti- P80 serumean hautematea.** 9 eta 24 hilabete bitarteko abereen urteko laginketa, (I) taularen arabera. Adin tarte horretan behar adina animaliarik ez balego, 24 hilabetetik gorako gazteenak hartuko lirateke.
- Abeltzaintzako **hazitarako abereak** beti begiratuko dira.
- Ustiategiaren ardura duen albaitariak **zirkulazio birikoaren susmoa badu**, hau da, urteko lagineko animalien artean **ehuneko 25etik gorako** positibotasuna badago, honela jokatu da:
 - Aurreko urteetako informazioaren arabera birusaren zirkulazioa agerraldi berri baten ondorio dela adierazten duten ganadutegietan, BCDren Atg-en hautematea ustiategian berriki sartutako animalietara eta azken laginketatik jaiotako animalietara mugatuko da, atc positiboak ez badira.
 - Osasun planetan sartu berri diren ganadutegietan, aurreko urteetan probarik egin ez bada edo zirkulazio birikoa izan badute, hiru urtetik beherako abereak aztertuko dira, BVDren atg posibleak hautemateko (atc positiboak izan ezik).

Txerto biziarekin TXERTATZEN DUTEN ustiategietako proba diagnostikoak:

- 3 hilabetetik gorako animalien serumetako poolaren urteroko laginketa, BVD birusaren PCR bidez hautemateko. Hiru hilabete baino gutxiagoko animaliei belarri koskaren bidez egingo zaie.
- Atc anti- P80 hautematea ustiategian jaiotako eta txertatu gabeko 24 hilabetetik beherako animalien ehuneko baten serumean.
- Aurreko urteetan aztertutako abeltzaintzan, honako hauek aztertuko ditugu:
 - Atc p-80, txertorik jarri ez zaien 24tik beherako animaliei.
 - 12 hilabetetik beherako animaliei PCR proba egitea, pool bidez edo banaka; 3 hilabetetik beherakoen kasuan belarriko laginean izango litzateke.

Neurriak eta ekintzak:

- PI abereak daudela susmatuz gero, Atc-n negatibo emandako hiru urtetik beherako animaliei BVD-Atg proba egingo zaie Elisaren bidez.
- Elisa bidezko Atg positiboak PCR bidez aztertuko dira; PCRan positibo emango balu, 21 egun igaro ondoren aztertuko litzateke, positibotasuna baieztatzeko eta PI gisa diagnostikatzeko.
- P-80 antigorputzetan seropositibo diren abereei ez zaie laginketa errepikaturik





egingo, eta laginketa berriak animalia seronegatiboetara mugatuko dira.

- Hiru hilabetetik beherako animalietan BVDren atg hautemateko proba kartilago aurikularrez egingo da.
- BVD Atg-n positibo eman duen abere bat ezin izango da beste ustiategi batera eraman (hiltegia izan ezik), ezta herri larreetara ere, eta ezin izango da ohiko bideetatik ibili infektatu gabeko beste ustiategi batera, harik eta emaitza negatiboa duen antigeno proba bat egiten zaion arte, gutxienez lehenengotik 21 eguneko tartearekin.
- Laborategiak PI animalien identifikazioaren berri emango dio albaitari baimenduari, eta bera arduratuko da ustiategiaren titularrari jakinarazteaz, laborategiko emaitzak jaso eta gehienez ere 3 eguneko epean. Haren erabilera bakarria hiltegia zuzenean eramatea izango da, gehienez ere 30 eguneko epean.
- PI berretsiak ondorengorik badu, sakrifiziorako erabiliko dira, PI batek beste PI bat sortzen baitu.
- Ustiategiko albaitariak beharrezkotzat jotzen dituen ustiategiak txertatuko dira.
- Birusa dabilen ganadutegi guztietan belarri kartilagoaren laginak hartuko dira.

Biosegurtasuna animaliak mugitzean:

- Ganadutegian BVDren atg negatiboa eman duten abereak baino ez sartzea.
- Urtebetetik gorako emeak BVDren Atc analisiarekin etorriko dira (loteko emeren bat Atc positiboa bada, BVD Atg-ren analisia egingo zaie lote horretako emeengandik jaiotako kume guztiei).
- Ferietatik edo abereen elkarretaratzeetatik zultzean, 12 orduetik gorako egonaldia edo estaliak badira, osasun estatusik gabeak, BVDren Atg analisia egingo zaizkie 42 egunera, eta urtebetetik gorako emeek Atg eta Atc (loteko emeren bat Atc positiboa bada, BVD Atg analisia egingo zaie lote horretako emeatik jaiotako kume guztiei).

5.4. IBR, Behien infekziozko errinotrakeitisa

IBR-ren aurkako borrokaren berriazko helburuak:

- Ganadutegietan gerta daitekeen zirkulazio birikoa hautematea.
- Gaixotasunaren ondorio kaltegarriak gutxitzea infekzio aktiboa duten ganadutegietan.
- Gaixotasuna artaldean eta ondoko ganadutegietan zabaltzea saihestea.
- Gaixotasunaren ezagutzazabaltzea.
- Artaldean eta mendilerroaren osasun estatusa monitorizatzea.

Kontuan hartu beharreko faktore epidemiologikoak:

Behien infekziozko errinotrakeitisa (IBR) behien arnas gaixotasun akutu eta kutsakorra da, 1 motako herpesbirusak (BHV-1) sortua. Batez ere arnas aparatuari eta ugaltze aparatuari eragiten die, eta animalian arnasketa eta ugalketa zantzuak eragiten ditu, batzuetan arnaberritzea ez direnak (azpiklinikoak), eta galera ekonomikoak eragin ditzakeantzasun arazoengatik eta saltzeko mugengatik.

Proba diagnostikoak:

- Antigorputz totalen edo anti-gBen probak IBRren txertorik ez duten ganadutegietan.
- IBR markatuarekin txertatzen duten ganadutegien anti-gE antigorputzen probak.
- Atc-a hautemateko, ustiategian jaiotako 9 hilabetetik gorako eta 36 hilabetetik





beherako abereen urteko laginketa egingo da, taula honen arabera:

(i) TAULA	
Populazioaren tamaina	Laginaren tamaina
-15	Guztiak
16-20	16
21-40	21
41-100	25
101-250	27
>251	28

- Laginketako abere guztiak negatibo dituzten ganadutegiei gainerako abereak aztertuko zaizkie.
- Markatu gabeko txertoak erabili dituzten ganadutegietan, txertoa hartu ez duten 9 hilabetetik gorako abereak baino ez dira aztertuko.

Neurriak eta ekintzak:

- Egindako analisien emaitzetan oinarrituta eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak IBR-ren aurkako borrokari buruz argitaratutako errege dekretuan ezarritakoaren arabera, **markatutako IBR-ren txertaketa nahitaezkoa da ustiategi guztientzat, IBR 4 direnentzat edo izateko prozesuan daudentzat izan ezik.**
- Txertoak ustiategiko albaitariak, programaren arduradunak edo hark gainbegiratuta aplikatuko dira, **eta haren informatizazioa modu masiboan egingo da.**

Biosegurtasuna animaliak mugitzean:

- Kalifikazio maila bera edo handiagoa duten ganadutegietako abereak sartzea, edo ustiategian **sartu baino 15 egun natural lehenago egindako probetan gE negatiboak edo gB negatiboak** direnak. Ezin bada, probak egingo dira sartu eta **42 egunera**, eta aldi horretan abereak **isolatuko dira**.
- **IBR 4** ustiategiek **helmugako probak 42 egunera errepikatu** behar dituzte.
- **Tratulari batengandik datozen abereek** probak egin behar dituzte ustiategian **sartu eta 42 egunera**.
- **12 ordutik gorako abeltzaintza lehiaketetatik edo estalita itzultzean, IBR 4 ez badira, handik 42 egunera sarrera probak egitea.**

Ganadutegien sailkapena:

Sailkapena honako hau izango da:

A) IBR-ren aurrean kalifikatu gabeko ustiapena edo <<IBR 0>>: IBR-ren aurkako borrokari buruzko errege dekretuaren programa aplikatzen ez dutenak, eta aplikatzen badute, betetzen ez dutenak eta hurrengo kategorietako batean sartzen ez direnak.

B) IBR» kontrolatzeko programan dagoen ustiategia edo «IBR 1: IBR-ren aurkako errege dekretuaren programa aplikatzen duten eta 9-36 hilabeteko adin taldean gE+ abereak dituzten ustiategiak.

C) IBR 1- kontrolatzeko programan dagoen ustiategia edo «IBR 1-»: ustiategian ez da





abereen ehuneko 100eko laginketarik egin, baina 9-36 hilabeteko adin-taldeko guztiek (horietatik laginak hartu dira azken 12 hilabeteetan) emaitza negatiboa izan dute anti-gE antigorputzetan.

D) IBR 2 kontrolatzeko programan dagoen ustiategia edo «IBR 2»: ustiategian ez da abereen ehuneko 100eko laginketarik egin, baina 9-36 hilabeteko adin-taldeko guztiek (horietatik laginak hartu dira azken 24 hilabeteetan) emaitza negatiboa izan dute anti-gE antigorputzetan.

E) Txertaketa duen IBR gabeko ustiategia edo «IBR 3»: 9 hilabetetik gorako abere guztiak 12 hilabete baino gutxiagoko epean aztertzen diren ganadutegiak, anti-gE antigorputzenemaitza negatiboa bada aztertutako laginen ehuneko 100ean.

B), C), D) eta E) kategorietan kalifikatutakoak nahitaez txertatuko dira txerto markatuarekin; E) ganadutegiek baino ez diote txertatze-iruztikatu F) kategoriara pasatze-erabakitzen dutenean.

F) Txertaketa ez duen IBR gabeko ustiategia edo «IBR 4»: behi azienda guztia gE- edo gB- den ustiategiak, 12 hilabetetik beherako aldi egindako probetan, eta azken bi urteetan txertorik jaso ez dutenak.

Kalifikazioari eustea:

- **IBR 1:** 9 eta 36 hilabete bitarteko abereen urteko laginketa (I) taularen arabera.
- **BR 1-, 2,3:** 9 eta 36 hilabete bitarteko abereen urteko laginketa (I) taularen arabera emaitza negatiboarekin.
- **IBR 4:**
 - **Kategoria honetan urtebete edo bi urte dituzten ganadutegiak, 24 hilabetetik gorako abere guztien urteko serum edo esne lagina emaitza negatiboarekin.**
 - **Kategoria honetan ondoz ondoko hiru urte edo gehiago dituzten ganadutegiak, txertatutako animaliarik gabe, urteko lagina (I) taularen arabera.**

5.5. Neosporosia

Diagnostikoa:

Neosporosiaren diagnostikoa beren klinikak eta datu epidemiologikoez justifikatzen duten ustiategietan egingo da.

Neosporen Elisa egingo zaie 9 hilabetetik gorako eme guztiei.

Nolanahi ere, ganadutegian sartzen diren emeek Neosporetan negatiboak izan beharko dute.

Neosporen probak ez dira errepikatuko ondoz ondoko urteetan, ustiategiko albaitariak erabaki ezean.

Neosporen aurka borrokatzeko programari atxikitzen zaizkion ganadutegiek hemen zehaztutako neurriak eta ekintzak aplikatu beharko dituzte.

Neurriak eta ekintzak:

Seropositiboak hauteman ondoren:

- Animalia seropositiboen erditzeak zaindu eta kontrolatzea, plazenta kentzeko gomendio higienikoez.
- Ganadutegiko txakurren kontrola.





- Ez utzi ugalketarako seropositiboen kume emeak.
- Seropositibo emeak ezabatzeagutxika-gutxika
- Abereak sartzean: eme guztiek seronegatiboak izan behar dute.

6. Biosegurtasuna animaliak mugitzean

- Ganadutegien betebeharra da haien ustiategietara egiten diren sarrerak jakinaraztea.
- Abereak herri larreetara eramaten dituzten abeltzainek jatorri eta osasun gida atera beharko dute nahitaez.
- Abereak osasun planean ez dauden ganadutegien ondoan bazkatzera eramaten dituzten abeltzainek, edo haien kategoria eurena baino txikiagoa bada, jatorri eta osasun gida atera beharko dute nahitaez.
- Gaixotasun bakoitzean, egin beharreko probak eta erosketa mugimenduetan kontuan hartu beharreko emaitzak zehazten dira.
- Herri lur edo larreetatik osasun planik GABE itzultzen diren abereek, edo kalifikazio txikiagoa dutenek, ustiategira itzultzean BVD, IBR eta paratuberkulosiaren sarrera probak egin beharko dituzte, eta hazitakorik badago, trikomonarenak.
- Azoketatik estalita edo egun bat baino gehiagoko ernari eta osasun estatusik gabe itzultzen diren abereei berrogeialdian jarri eta IBR eta BVDren analisia egingo zaie.
- Hazkuntza zentro batetik itzultzen diren abereak zentroaren programa eta osasun estatusaren araberakoak izango dira, eta ustiategiko albaitariak zehaztuko ditu kasuz kasu.
- Ustiategira sartzeko kontrola, eta hauen garbiketa eta desinfekzioa:
 - Ibilgailuen gurpilak.
 - Oinetakoak (ahal dela, erabili galtzak).
 - Aurretik beste ganadutegi batetik pasatutako beste edozein material.
- Bestnoitian negatibo emandako abereak erostea komeni dela jakinaraziko zaie abeltzainei.

7. Konpromisoak

Herri lurren kudeatzailea:

- Osasun plana eta talde teknikoak gaixotasun bakoitzerako zehaztutako neurriak eta gomendioak onartzeko konpromisoa.
- Elkartekideei osasun planaren baldintzak jakinaraztea eta horien ezarpena erraztea.
- Albaitari taldeari jakinaraztea, larre aldia baino lehen, herri lurretara igoko diren hazitarako abereak, trikomonen analisi negatiboa dutela egiaztatzeko.
- Neurriak definitzea, arauak bete ezean.
- Talde teknikoarekin lankidetzanaritzea.
- Talde teknikoak egindako zerbitzuen, materialen eta egindako analisien ordainketa onartzea.

Ganadutegiaren arduraduna:

- Ustiategiaren osasun egoerari buruzko informazioa emateko konpromisoa.
- Animalien joan-etorrien berri ematea.





- Tratamenduen erregistro liburuaren kudeaketari buruzko legezko araudia betetzea.
- Biosegurtasuneko oinarriko arauak eta lehenago azaldutako animalien sarrerako arau zehatzak betetzea.
- Osasun programan zehaztutako neurriak aplikatzea gaixotasun bakoitzerako eta gauzatze epean.
- **Ustiatetikiko albaitari bat izendatzea.**

Ustiatetikiko albaitaria eta talde tekniko arduraduna:

- Osasun plana egitea eta haren jarraipena egitea.
- Emaitzen analisia eta tratamendua.
- Ganadutegiei emaitzen berri ematea.
- Programan finkatutako osasun jardunak koordinatu, betearazi eta ikuskatzea.
- Sarreren dokumentazioa hilerok kontrolatzea.
- Informazio dokumentazioa egitea.
- Txertoak eta zoosanitarioak, biozidak eta beharrezko den materiala erosteko kudeaketa.
- Jardunen eta gastuen justifikazioaren memoria.

8. Analsiak

- Trikomoniasia: esmegma prepuzialaren kultiboa eta PCR bidezko berrespena.
- IBR: serumeko antigorputzak: ELISA gB, ELISA gE (txerto markatzailearekin immunizatutako animaliak).
- BVD: ELISA anti p80 antigorputzak serumean, ELISA antigenikoa (ERNS) odolean EDTArekin, odol osoa edo belarri koska eta PCR.
- Neosporosia: Zeharkako ELISA serumean.
- Paratuberkulosia: ELISA antigorputzak serumean (baheketa-baieztapena); PCR gorozkietan.

9. Gauzatzeko epea

Programa honek 2024. urtean egin beharreko ekintzak biltzen ditu.

10. Informazioa eta zabalkundea

- Abeltzainekin informazio bilerak egitea, osasun planaren gaia diren gaixotasunen ezagutza eta ondorioak zabaltzeko, bai eta gaixotasun horiek prebenitzeko har daitezkeen neurriak ere.
- Gaixotasunei eta ganadutegian maneiatzeko moduari buruzko informazio dokumentazioa.

11. Adierazleak

Osasun arloko jarduerari buruzko adierazleak.

- Programari lotutako ganadutegien kopurua.
- Programari lotutako erroldak, adin tarteen arabera.
- Gaixotasun bakoitzeko aztertutako abereen kopurua.
- Gaixotasun bakoitzeko positibo emandako abereen kopurua.





- Gaixotasun bakoitzeko abereen ehunekoa.
- Gaixotasun bakoitzeko erasandako ganadutegien kopurua.
- Gaixotasun bakoitzeko erasandako ganadutegien ehunekoa.
- IBR 0 ganadutegien kopurua.
- IBR 1 ganadutegien kopurua.
- IBR 1 ganadutegien kopurua.
- IBR 2 ganadutegien kopurua.
- IBR 3 ganadutegien kopurua.
- IBR 4 ganadutegien kopurua.
- Sarrera giden kopurua.
- Animalia sartu berrien kopurua.
- BVD birusaren zirkulazioa duten ganadutegien kopurua.
- BVDren aurka txertatzen duten ganadutegien kopurua.

Jarduera teknikoari buruzko adierazleak.

- Ganadutegietara bidalitako informazio gutunen kopurua.
- Bilera teknikoen kopurua.
- Herri lurren eta ganadutegien kudeatzaileekin egindako bileren kopurua.

12. Lantaldea

Programa garatzeko langileak Aberekoak dira.

Berriazko langileak:

• Albaitaritzako esku hartze eta programaren koordinazioko unitatearen arduraduna: Ana Díez.

- Programaren arduradun teknikoak: Jesús Luis Aldama, Felipe Rodriguez.
- Gauzatzea eta emaitzen jarraipena: Abereko albaitari taldea.
- Administrazioa: Yolanda Sastre eta Ana López de Gauna.

Aholkularitza.

- * Gorka Aduriz (Neiker-Tecnalia).
- * Joseba Garrido (Neiker-Tecnalia).

13. Baliabide materialak eta azpiegiturak

Abererenak.

14. Informatika aplikazioak

- Informatika aplikazioak eta datuen segurtasun neurriak Aberen ezarritakoak izango dira.
- Eskalmendiko abre laborategian prestatutako programaren emaitzen irteerak eta txostenak erabiliko dira emaitzen txostenak ateratzeko.





277/2024 espedientea. Eguzki-planta fotovoltaikoetarako instalazioak (Solaria Zierbena 2, 3 eta 4) aldez aurretik baimentzeko espedienteari egindako alegazioei buruzko proposamena

Alkate jaunak bozketarako aurkeztu du eguzki-planta fotovoltaikoetarako instalazioak (Solaria Zierbena 2, 3 eta 4) aldez aurretik baimentzeko espedienteari egindako alegazioei buruzko proposamena gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Alkate jaunak azaldu du EKAIN eta EKOIURE abokaturia-bulegoek eguzki-planta fotovoltaikoetarako instalazioak (Solaria Zierbena 2, 3 eta 4) aldez aurretik baimentzeko espedienteari alegazio-proposamenak egin dizkiotela. Azaldu du kontraesanetan ez erortzeko EKAINek egindako alegazioak administrazio- eta hirigintza-zuzenbidearen ikuspegiaren arabera mantenduko dituela eta EKOIUREnak, aldiz, ingurumen ikuspegiaren arabera

Adierazi du EKOIUREk idatzitako alegazioak administrazio batzarrei igorri zaizkiela; eta halaber, proiektuak eragindako lursailen jabeek aurkez dezaketelarik idazki-eredua helarazi duela.

386/2024 espedientea. Ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Eguna dela eta, erakunde-adierazpenaren proposamena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Alkateak bozketarako aurkeztu du Ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Eguna dela eta, erakunde-adierazpenaren proposamena gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak proposatu du berdintasun teknikariak idatzitako erakunde-adierazpenari honako parrafo hauek gehitzea:

“Hori guztiaren aurrean antolakuntza eta borroka ezinbestekoak dira. Gure kasuan, ezinbestekoa da erakundeek politika publiko integralak, ikuspegi feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiboa eta autodefentsa ezartzeko mekanismoak eta abar ezartzea. Funtsezkoak ez diren politikak alde batera utzi eta egiturazkoak direnak erdigunean jartzeko garaia da. Horretan gaude eta hori sustatzen jarraituko dugu askoren artean eta elkarlanean.

Hori guztia dela eta, udalek gure udalerrietan bizi diren LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen bizitzaren inguruko diagnostikoa egiteko konpromisoa hartzen dugu, bai eta horietan oinarritutako ekintza-plan integralak sustatzeko ere. Prozesu horiek herriko LGTBIQ+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta halakorik ez badago, erreferente eta gizabanako ezberdinak aktibatuzko moduak sustatuko ditugu.

Gainera, ekainaren 28aren harira antolatu diren ekimenetan eta mobilizazioetan parte hartzea deitzen dugu. Azkenik, LGTBIQ+ pertsonen bizitzak estimulatzaileak izan daitezen lan egiten eta borrokatzen duten kolektiboak eta kideak zoriondu nahi ditugu; izan ere, harro sentiarazten gaituen mugimendu bat osatzen dugu”.

Maite Cobo Barcala eta Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziek nahiago dute teknikariaren proposamena bere horretan mantendu, horren eduki tekniko dela eta.

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak harridura adierazi du, gehitzeko proposatu dituzten parrafoek ospakizunarekin bat datozen balioak sustatzen dituztela adierazi du, udal-jarduketa azpimarratuz.

Alkate jaunak bozketarako aurkeztu du berdintasun teknikariak idatzitako erakunde-adierazpenaren proposamena, aldaketarik gabe. Udalbatzak aho batez onetsi du eta honako





hau dio:

Stonewalleko matxinada, hau ere ezaguna, 1969ko ekainaren 28ko goizaldean Estatu Batuetan izan ziren bat-bateko manifestazio batzuk izan ziren. Sarritan, istilu horiek aipatzen dira lehen aukera gisa, LGBT komunitateak jazartzen zituen sistema baten aurka borrokatu zuen historian, eta, oro har, LGBT eskubideen aldeko mugimendu modernoaren katalizatzailetzat hartzen dira mundu osoan.

Orduztik hona, asko egin du aurrera legeak, sexu orientazioa eta/edo generoa edozein dutela ere pertsona guztiak eskubide berdinak izateko; LGBT kolektiboetako pertsonak gainerakoekin berdintzen dituzten legeak onartu dira. Jendarteak ere aurrera egin du bide horretan; oro har, gizarteko kideen sexualitate motak eta generoa bizitzeko askotariko erak modu irekian adierazi ahal izateko espazio sozialak gero eta gehiago dira.

Lege-aldaketa eta aurrerapen sozial asko lortu diren arren, LGBT pertsona askok diskriminazioari, estigmatizazioari eta indarkeriari aurre egiten jarraitzen dute.

Jendarte gisa oraindik bide luzea dugu berdintasun erreala eta efektiboa lortzeko. Aurreiritziak, uste faltsuak, estereotipoak, mespretxuak eta gorrotoa ematen da gure udalerrietan. Sexilioaren fenomenoak gure udalerrietako auzotarren artean gertatzen da oraindik ere, eta oraindik ez dugu gure udalerrietako kideek osatutako gizarte- mugimendurik, LGBT komunitatearen eskubideen aldeko ahotsa nagusituko duenik, eta horrek ez du esan nahi eskubide guztiak bermatuta dituztenik baizik eta oraindik ez dagoela behar besteko indarrak erabat bistakoak izateko, epairik sentitu gabe.

Pertsona askok (nagusiki lesbianek, transexualek, adintsuek edo desgaitasuna duten pertsonak), eta horien aurkako eraso fisikoek gora egin dute gure hirietako eta herrietako espazio publikoetan; horrelakoek agerian uzten dute oraindik ere, sexualitatea eta genero aniztasuna libreki bizitzeko askatasun eza dagoela.

LGBTfobien aurkako borroka pertsonen berdintasunaren printzipioa, duintasuna eta Giza Eskubideak defendatzea da. LGTB pertsonen aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztien aurka egiten diren ahalegin guztiak aurrerapen kolektibo bat dira, egunetik egunera gero eta inklusiboagoa eta baztertzailagoa, bidezkoagoa eta errespetuzkoagoa eta, azken batean, berdinzaleago den gizarte baterantz.

Garai zailak bizi ditugu, non eskubide horien aurkako jarrerak eta gaitortutzat jotzen genituenak berriro esnatzen diren hamarkadetako borroka batek ekarri duen ahalegin guztia bertan behera uzten saiatzeko.

Sexu- eta genero-aniztasunaren eskubideetan atzera egitea gizarte gisa atzera egitea da, mundu bidezkoago hori lortzeko.

Goazen E-28ra gure sexualitate eta genero ezberdinak harrotasunez defendatzera.

B) KONTROL-JARDUERA

343/2024 espedientea. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa, 2024ko lehenengo hiruhilekoa

Alkate jaunak Udaltzari hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen berri eman dio. Adierazi du legez aurreikusitako batez besteko ordaintzeta-epea bete dela; hori 29,76 eguneko izan da eta hortaz, ez ditu 30 egunak gaituzten:





2024 URTEA	1. HIRUHILEKOA	2. HIRUHILEKOA	3. HIRUHILEKOA	4. HIRUHILEKOA
Ordainketen zenbateko guztia (euroak)	652.338,73			
Ordaindutako eragiketen ratioa (egunak)	26,94			
Ordaintzeke dauden eragiketen zenbateko guztia (euroak)	171.890,93			
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa (egunak)	34,14			
Ordainketaren batez besteko denbora (egunak)	29,76			

2024ko urtarrileko kontaketa-aktak

2024ko urtarrileko gastu eta sarreraren aurrekontuaren eta kontaketa-aktaren gauzatze-egoeraren berri eman da, bai eta Diruzaintzako Kontua ere. Talde politikoetako ordezkari bakoitzari kopia bana eman zaio, azter dezan. Hona hemen emaitzak:

2024ko URTARRILEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.227.503,71€
Aurrekontuko sarrerak.....	544.374,05€
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	287.253,05€
Aurrekontuko ordainketak.....	354.616,57€
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	3.049,36€
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	0,00€
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.702.948,23€

209tik 292ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0209 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 748. partzelan igerilekua lehenengo okupatzeko lizentzia emateko]

2024-0210 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zaitegi udalerriko 2. poligonoko 208.





partzelan dagoen etxebizitza berritzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0211 DEKRETUA Ezeztatua

2024-0212 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HAPO idazteko lanak egiten jarraitzeko adjudikaziodunaren lehen ordainketa onartzeko]

2024-0213 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0214 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 3. poligonoko 53. partzelan dagoen etxebizitza teilaberritzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0215 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0216 DEKRETUA [Zizkiñora doan baso-bidea konpontzeko eta egokitzeko obra txikiaren kontratua adjudikatzeko ebazpena]

2024-0217 DEKRETUA [Udal-antzokirako askotariko materiala hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko ebazpena]

2024-0218 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0219 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0220 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0221 DEKRETUA Ezeztatua

2024-0222 DEKRETUA Ezeztatua

2024-0223 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0224 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Aitor Gorosabelen eta Xabi Bastidaren kontzertuaren gastua onartzeko]

2024-0225 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodaka udalerrian elbarritasuna duten pertsonentzako aparkalekua margotzeko eta seinaleak jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0226 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0227 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko abeltzaintza-kanonaren zerga-bilketako errolda onartzeko]

2024-0228 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko okupazioen eta luberritzeen zerga-bilketako errolda onartzeko]

2024-0229 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Urisoloko lokala (4A-beheko solairua, eskuina) alokatzeko kontratuaren 4. luzapena onartzeko]

2024-0230 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Urisoloko lokala (4B-beheko solairua, ezkerre) alokatzeko kontratuaren 2. luzapena onartzeko]

2024-0231 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Urisoloko lokalaren (1B-beheko solairua, ezkerre) errenta 2024/5/27 eta 2025/5/26 denborarako eguneratzeko]





2024-0232 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, CLUB DE CAZA OJARAS taldeak jarritako ezohiko berrikuspen-errekurtsioa ez onartzeko]

2024-0233 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako saneamendu-sareko obran obra gehigarriak egiteko kontratua aldatzeko]

2024-0234 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ehiza-barrutia adjudikatzeko]

2024-0235 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 642. partzelan dagoen etxebizitzaren garajera sartzeko arrapalaren zati bat konpontzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0236 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0237 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0238 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0239 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Eribeko 5. poligonoko 624. partzelan lizentziarik gabe instalatutako amateurraren estazio erradioelektrikoko antena kentzeko agintzeko]

2024-0240 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0241 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabetza publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren likidazioa onartzeko]

2024-0242 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, onura publikoko mendian aziendarentzako bazka-azalera aprobetxatzea baimentzeko, 2025. urtea]

2024-0243 DEKRETUA [Ebazpena, idazkari kontu-hartzailearen telelaneko gunea egokitzeko altzariak eta bulego-materiala hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0244 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, "Solaria Zierbena Solar 3" proiektuari alegazioak idazteko aholkularitza juridikoko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0245 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, XXVII Zaldien Azokarako eta Kuadrillako zaldi-aziendako III. Lehiaketarako gastua onartzeko]

2024-0246 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko zerga-bilketako erroldan onetsitako TMIZren likidazioen akats materiala zuzentzeko eta kuotak zuzentzeko]

2024-0247 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, EJZko azalera-elementuaren egiaztapen mugatuko espediente hasteko]

2024-0248 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateko]

2024-0249 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateko]

2024-0250 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren likidazioa onartzeko]

2024-0251 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, abeltzaintzako ustategien erregistroko inskripzioan baja emateko]





2024-0252 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko zerga-bilketako erroldan ez egoteagatiko ibilgailuaren likidazioa onartzeko]

2024-0253 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 5. poligonoko 85. partzela alokatzeko espedientea eta lizitazioaren agiriak onartzeko]

2024-0254 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/13 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0255 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ezkontza zibila egiteko ahalmena eskuordetzeko]

2024-0256 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udal-langileen 2024ko lan-egutegia onartzeko]

2024-0257 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, jabearen desgaitasuna dela eta TMIZren salbuespena emateko]

2024-0258 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegi udalerriko udal-baskularen aldizkako egiaztapen-zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0259 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, obra-, lehen okupazio- eta jardueralizentzien eskualdaketan atzera egiteagatik prozedura amaitzeko]

2024-0260 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeia Eskolako igotzeko joko konbinatuaren kautxuzko lurra konpontzeko eskatzeko, berme-aldian dagoelako]

2024-0261 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, zabor-tasaren erroldan baja ematea ezesteko eta likidazioen aurkako berrikuspen-errekurtso berezia ez onartzeko]

2024-0262 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, nahitaezko diru-bilketan zerga-zorren ordainketaren geroratzea emateko]

2024-0263 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorpegiko 5 poligonoko 139. partzela errentan hartzeko espedientea eta lizitazioaren agiriak onartzeko]

2024-0264 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, jabearen desgaitasuna dela eta TMIZren salbuespena emateko]

2024-0265 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko maiatzeko nominak ordaintzea onartzeko]

2024-0266 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Eribeko 5. poligonoko 1076. partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0267 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko TMIZren akats materiala zuzentzeko eta nekazaritzako ibilgailuen salbuespenak emateko]

2024-0268 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategi udalerriko 2. poligonoko 288. partzelan hirigintza-legezotasuna berrezartzeko espedientea hasteko]

2024-0269 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko udarako denboraldirako Zuiako igerilekuetarako garraio-zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzeko]

2024-0270 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Gopegiko 6. poligonoko 1222. partzelako barbako antolamenduz kanpo dagoela adierazteko]

2024-0271 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udal-pilotalekuan ikasturte amaierako jai ospatzeko baimena emateko]





2024-0272 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodaka udalerriko 1. poligonoko 654. partzelan familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko obren hasiera-epea luzatzeko]

2024-0273 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murua udalerriko 3. poligonoko 136. partzelan ataripea eraikitzeko obren hasiera-epea luzatzeko]

2024-0274 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, idazkari kontu-hartzailearen telelanerako informatika ekipoa hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0275 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024/04/01etik 2025/03/31ra bitartean udal informatika ekipoen mantenu-zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0276 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako Hegoalde kalean eta Goikolanda kalean trafikoko S-28 eta S-29 (bizitegi) seinaleak jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0277 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 2. poligonoko 802. partzelako udal-etxebizitzako sukaldean altzariak eta etxetresna elektrikoak hornitzeko eta jartzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0278 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 3. poligonoko 2055B partzelan hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espedientea hasteko]

2024-0279 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, kanporako lau karpa hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0280 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitiko sakabanatuetan 4. poligonoko 274. partzela enkante bidez besterentzeko espedientea eta agiria onesteko]

2024-0281 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Alkatetzaren 1/2024 kredituaren transferentzia onartzeko]

2024-0282 DEKRETUA Ezeztatua

2024-0283 DEKRETUA, [Alkatetzaren Ebazpena, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia emateko]

2024-0284 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, espedientea igortzeko eta alegazioak aurkezteko epea luzatzeko]

2024-0285 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko ekainaren 29an XXXIX Premio Ntra. Sra. de Oro- VII Memorial J.L. IBAÑEZ-ARANA kirol ekitaldia baimentzeko]

2024-0286 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zuia Bira martxa-froga egiteko baimena emateko]

2024-0287 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako 1. poligonoko 683. partzela besterentzeko espedientea eta baldintzen agiria onartzeko]

2024-0288 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Alkatetzaren 3/2024 kreditua gehigarria onartzeko]

2024-0289 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizios baja emate aldera espedientea hasteko]

2024-0290 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, San Pedroko baserrietako (Zestafe) 4. poligonoko 215. partzelan bazka-biltegia egikaritzeko proiektua onartzeko]

2024-0291 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako (LESPEAko erabiltzaileen komunitatea) lurzoru industrialak urrez hornitzeko laguntza juridikoko kontratu txikia adjudikatzeko]





2024-0292 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Solariak sustatutako eguzki-planta fotovoltaikoen eta ebakuazio-azpiegituraren proiekturako alde aurreko administrazio-baimenari alegazioak egiteko laguntza juridikoa emateko kontratu txikia esleitzeko]

Alkatetzaren txostenak

PARTZELAK BESTERENTZEA:

Alkate jaunak jakinarazi du Apodakako Lugarri 3 kaleko bizitegi-partzelaren enkantea egiteko iragarkia argitaratu dela. Partzelak 1033 metro ditu eta irteerako prezioa 130.000 €-koa da, BEZa barne

Halaber, jakinarazi du Zigoitiko sakabanatuetan Ubideatik gertu dagoen landa-partzela enkante bidez besterentzeko iragarkia ere argitaratu dela. Partzelak 1273 metro ditu eta irteerako prezioa 4.200 €-koa da, BEZa barne. Eskaintza bakarra aurkeztu dela adierazi du.

UZTAILEKO BATZORDEA ETA OSOKO BILKURA:

Alkate jaunak proposatu du informazio batzordearen eta osoko bilkuraren ohiko saioak astebete atzeratzea, uztailaren 15ean eta 22an egin daitezen, hurrenez hurren.

C) ESKAERAK ETA GALDERAK

HERRITARREN AHOLKULARITZA:

Xabier Nafarrete Cadiñanos zinegotziak proposatzen du Udalak abokatuen bulego bat kontratatzea SOLARIAK lurren salerosketa-prozesuan engainatu dituen jabeei aholkularitza emateko, besterentze horiek leheneratuko dituen ekintzaren bat egin dezaketenez baloratzeko.

LANDA-PARTZELA BESTERENTZEA:

Eduardo Lorza García zinegotziak galdetu du zein izango diren landa-lurzoruko besterentzean Udalak jarraituko dituen irizpideak; duela gutxi udal landa-partzela baten enkantea hasi baita.

Alkate jaunak erantzun dio partzela saltzea erabaki duela udalerrian abeltzaintza-jarduera hasi ahal izateko xedearekin, izan ere, lur hori beharrezkoa da jarduera hasteko.

BEGOLARRA PARKEKO OBRAK:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak kezka adierazi du Bengolarrako eraikina birgaitzeko obrak egiten ari den eraikitzaileak parkearen zati handi bat hartu duelako, hurrengo jaiegunei begira.

Alkate jaunak erantzun du enpresari dagoeneko jakinarazi zaiola okupazioak ahalik eta txikiena izan behar duela eta eremua babestu behar dutela istripuak saihesteko.

BIGARREN LANGILEAREN KONTRATAZIOA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak bide publikoan bigarren langile bat kontratatu ahal izateko lanpostuen balorazioaren kontratazioari buruz galdetu du.

Alkate jaunak erantzun du dagoeneko enpresa bat kontratatu dela lanpostu zerrenda onartzeko, etorkizunean kontratazioak egiteko aurrerapauso gisa.

Zinegotziak galdetu du ea hainbat aurrekontu eskatu diren. Idazkariak adierazi du aurrekontu bakarra eskatu dela, zehazki beste udal batzuen teknikarien erreferentzia onak





zituen enpresa bati. Zinegotzia kexatu egin da EKAIN enpresak era horretako lanak egin dituelako beste udal batzuetan eta aurrekontua hari eskatu ahal zitzaiolako.

Idazkariak erantzun du bere esperientzia bestelakoa izan dela eta nahiago izan duela kontuzko lan hori egiteko konfiantza lan-arloan aditua den beste enpresa batean jartzea.

Zinegotzia kexatu egin da ez dituztelako kontuan hartu eta parte hartzea gustatuko litzaikeelako.

Idazkariak erantzun du egokitzat jotzen dituzten iradokizunak egin ditzaketela plantillaren egituraketaren inguruan. Azpimarratu du bete talde politikoak aspalditik eskatu duela bigarren langile-lanpostu bat, nahiz eta langileen beharrek nabarmen gaintitzen duten eremu hori. Azaldu du lanpostu-zerrendan mantenuko langile bakarra badago ere, egungo aguazilak bere lanaldiaren ehuneko hirurogeita hamar inguru erabiltzen du langile lanetarako; beraz, paperean ez, baina benetan, bi pertsona daude kalean lanean. Hala ere, azaldu du lan administratiboan disfuncionaltasunak daudela eta horrek langile guztiak arrisku psikosozialean kokatzen dituela. Azaldu du zenbait lanpostuk lan-karga handia dutela eta ondorioz egunero korrika ibili behar dutela eta espedienteak izapidetzean atzerapen kronikoa sortu dela. Gehitu du plantillak administrari laguntzaileak dituela, garatu beharreko lanetara moldatzen ez diren mota guztietako langileak. Halaber, alegatu du kultura arloko langileen egitura ez dagoela ongi planifikatuta; izan ere, ehuneko berrogeita hamarreko arduraldia (gutxi) duen kultura teknikari batek eta ehuneko hirurogeita hamabosteko arduraldia duen zentro soziokulturaleko koordinatzaileak (subkontrata bateko langilea) osatzen dute. Horiek horrela, Bengolarra eraikinean abiaraziko diren zerbitzu berriez nor arduratuko den hausnartu behar da.

Azkenik, idazkariak zinegotziari galdetu dio berak nahi duena kalean bi langile egotea den. Honek baietz erantzun du. Idazkariak kaleko kuadrilla ofizial batek eta peoi batek osatzeko aukeraren inguruan hausnartzera gonbidatu du. Azpimarratu du plantillaren egiturak egin beharreko zereginen hausnarketa sakona dakarrela. Zinegotziak planifikazioan parte hartzea gonbidatzen ditu.

Idazkaritzaren eginbidea:

Akta 2024ko uztailaren 22ko osoko ohiko bilkuran onetsi da.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

